# Bestelako Xedapenak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**6531**

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 22koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2011. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru beketarako deialdia onartzen duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan. Ildo horretan, Emakunde da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan emakume eta gizonen berdintasun-politika bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzen duen erakundea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3.i) artikuluan, erakunde horri izendatzen zaio jarduera-eremu guztietan egin beharreko politika taiutzeko azterlanak egin daitezen bereziki sustatzea.

Izan ere, berdintasunaren aldeko politikak garatuko baditugu, aztertu egin behar dugu zer genero-harreman eta -rol dauden gaur egun emakumeen eta gizonen artean arlo guztietan ageri diren ezberdintasunen oinarrian, eta abian jarri diren edo jarriko diren ekimenek emakumeengan eta gizonengan nola eragiten duten edo nola eragin dezaketen. Azterlan horiek garatu eta zabaltzea funtsezkoa da eztabaida publikorako eta erabaki politikoak hartzeko, are gehiago genero-ikuspegia politika guztietan txertatu nahi badugu. Europako Kontseiluan sortutako «mainstreaming» delakoaren aditu-taldeak baieztatzen duenez, politikak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenek eskura eduki behar dituzte beharrezkoak diren tresnak, hain justu ere, generoari buruzko alderdiei ekiteko, alderdi horiek aztertzeko eta berdintasunerantz aurrerapausoak emateko neurriak proposatzeko.

Deialdi honetarako, erakunde honen iritziz egoki da aurreko ekitaldian hasitako ildoarekin jarraitzea. Hartan, beken bitartez, batez ere orain arte behar bezala ekin gabeko eremuetan ikerlanak egitea arautu zen, eta ikerlanak argitaratzeko diru-laguntzen ildoari soilik eutsi zitzaion. Bekak beste laguntza mota bat dira, eta ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen eremuetan, deialdi mota horiei dagozkien araudia eta ezaugarriak aplikatuko zaizkie, oro har.

# Otras Disposiciones

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**6531**

RESOLUCIÓN de 22 de diciembre de 2010, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se aprueba la convocatoria de tres becas de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2011.

El fin esencial de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer es la consecución de la igualdad real y efectiva de hombres y mujeres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco. En este sentido, Emakunde es el organismo encargado del impulso, asesoramiento, planificación y evaluación de las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el ámbito de la Comunidad Autónoma del Euskadi, según determina la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. El artículo 3.i) de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, atribuye a este organismo la facultad de promover especialmente la realización de estudios dirigidos a perfilar la política a realizar en distintas áreas de actuación.

En efecto, el desarrollo de las políticas de igualdad requiere investigar sobre los roles y las relaciones de género en las que se sustentan las desigualdades actualmente existentes entre las mujeres y los hombres en todos los ámbitos, sobre el modo en que afectan o pueden afectar a las mujeres y a los hombres las iniciativas que se han puesto o se vayan a poner en marcha. El desarrollo de estos estudios, así como su difusión, es fundamental para el debate público y para la toma de decisiones políticas, más aún cuando se trata de implantar la integración del enfoque de género en todas las políticas. Quienes tienen la responsabilidad política y técnica de planificar, poner en marcha y evaluar las políticas necesitan contar con los instrumentos necesarios para analizar y abordar los aspectos de género y plantear medidas de avance hacia la igualdad, tal y como afirma el Grupo de especialistas en «mainstreaming» creado en el Consejo de Europa.

Para la presente convocatoria este Instituto ha considerado la conveniencia de continuar la línea iniciada en el ejercicio anterior, por la que se reguló mediante la modalidad de becas la realización de trabajos de investigación, sobre todo para ámbitos que hasta ahora no habían sido debidamente abordados, manteniendo únicamente como línea subvencional la publicación de los trabajos de investigación. Las becas se configuran como un tipo más de ayuda, a las que les resulta aplicable con carácter general la normativa

Bekak lehiaketa-prozeduraz esleituko dira, behar bezala barematitako esleipen-irizpideei jarraituz. Azkenik, beka emateak inoiz ez du kontratu, lan edo estatutu bidezko loturarik ezarriko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

Ekitaldi honetan, ondo zehaztutako hiru beka-motarekin jarraitzen da -beka bakoitzari ikerlan-mota bat dagokio-, nahiz eta 1. motako bekaren edukia aldatu egin den: lehen emakumeen lanbide-ibilbidearen analisia eta bilakaera eta horiek jakintza-eremuetan identifikatzea Euskal Autonomia Erkidegoan zen, eta orain, berdintasunaren alde egiten duten enpresa-kulturako faktoreak aztertzea. Izan ere, uste dugu aurreko deialdiko edukia nahikoa landuta dagoela; eduki berriarekin, aldiz, ikerketa berriak egitearen alde egiten da; hortaz, deialdian lortu nahi diren helburuak lortzearen alde.

Halaber, hautagaiak hautatzeko prozedura objektiboagoa da, alegia: hautaketa-prozeduran lehen hautaketa-aldia egiten da, eta ondoren elkarrizketa bat, hautaketa-prozedura egoki kudeatzeko egokitzat jotzen den hautagai-kopuru jakin batekin; balorazio-irizpide objektibo eta tasatu berberak erabiltzen dira bai lehen hautaketa-aldian, bai ondoko elkarrizketan.

Inguruabar horiek kontuan hartuta, hiru beka emateko deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezen ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.

Azkenik, deialdi honi gastu-espedienteen aldez aurreko izapideak egingo zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorren kontura.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Deialdi honen xedea hiru beka ematea da, 2011. urtean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egiteko.

***2. artikulua.***– Beka bakoitzaren edukia eta ezaugarriak.

y las características sobre este tipo de convocatorias en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, adjudicándose por el procedimiento de concurso mediante unos criterios de adjudicación debidamente baremados, y su concesión nunca llega a establecer relación contractual, laboral o estatutaria alguna con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

En el presente ejercicio se siguen manteniendo tres tipos bien definidos de becas, cada una de las cuales se corresponde con tres tipos de trabajos de investigación, si bien se ha cambiado el contenido de la beca tipo 1, que ha pasado de tener por objeto el análisis y evolución de la trayectoria profesional de las mujeres y su identificación en los distintos ámbitos de conocimiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al análisis de los factores de la cultura empresarial que favorecen la igualdad, por entender que el contenido de la convocatoria anterior se encuentra suficientemente trabajado, mientras que el nuevo contenido es más proclive al fomento de nueva investigación y, por ende, a los fines pretendidos por la convocatoria.

Al mismo tiempo se ha introducido mayor objetividad en el procedimiento de selección de las candidaturas, en el sentido de que el procedimiento de selección se compone de una preselección y una posterior entrevista de un número máximo de candidaturas que se estima pertinente para la gestión adecuada del procedimiento de selección, aplicándose tanto en la preselección como en la posterior entrevista unos mismos criterios objetivos y tasados de valoración.

Considerando estas circunstancias, esta convocatoria de tres becas pretende dinamizar estos campos de estudio y permitir la realización de trabajos de investigación que favorezcan la consecución de la igualdad de mujeres y hombres por parte de personas o grupo de personas especialistas en la materia, para garantizar la calidad en los trabajos de investigación y lograr los fines expresados.

Finalmente, la presente convocatoria se acoge a la tramitación anticipada de expediente de gasto, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

La presente convocatoria tiene por objeto proceder a la provisión de tres becas para la realización de trabajos de investigación, a lo largo del año 2011, que favorezcan la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

***Artículo 2.***– Contenido de cada una de las becas y características de las mismas.

1.– Beka-mota bakoitzaren edukia ikerketa gai hauei buruzkoa izango da:

a) 1. beka mota: berdintasunaren alde egiten duten enpresa-kulturako faktoreak aztertzea.

b) 2. beka mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzeari eta segurtasunari dagokionez.

c) 3. beka mota: une honetan Euskal Autonomia Erkidegoan sektore kultural eta/edo artistikoan, prestakuntza, sorkuntza, ekoizpen, banaketa eta berrikuntzaren eremuetan diharduten emakume edo emakume-taldeen presentzia aztertzea eta horiek identifikatzea.

2.– Beka eskatzen duten banakoek edo taldeek beka-mota baterako baino gehiagorako proiektuak aurkez ditzakete.

3.– Beka emateak ez du kontratu, lan edo estatutupeko loturarik ezarriko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

***3. artikulua.***– Hautaketa eta diru-hornidura.

1.– Deialdi honetako beka-mota guztiak (3) lehiaketa-prozeduraz ebatziko dira. Ondorio hauetarako, lehiaketa izango da bekak emateko prozedura, non aurkezten diren eskaerak alderatzen diren, eskaera horien arteko lehentasuna finkatzeko eta beka bakoitzean balorazio-irizpideen arabera balioespenik onena lortu duten eskaerei soilik emateko.

2.– Erakundearen Aurrekontuetan ondorio horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako da aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-hornidura. Zenbatekoa, hasieran behintzat, hirurogeita bederatzi mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi (69.999) eurokoa izango da 2011ko ekitaldirako.

2011ko bekak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa agindua).

***4. artikulua.***– Eskatzaileak.

1.– Bekak jaso ditzaketen banakoek edo taldeek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Ikerlana Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar da.

1.– El contenido de cada tipo de beca versará sobre los siguientes objetos de investigación:

a) Beca tipo 1: el análisis de los factores de la cultura empresarial que favorecen la igualdad.

b) Beca tipo 2: el análisis de las situaciones y de las desigualdades en los colectivos de mujeres en riesgo de discriminación múltiple y, especialmente, en el acceso a los recursos sociales económicos y en la seguridad.

c) Beca tipo 3: el análisis de la presencia e identificación de las mujeres o grupos de mujeres en actividades de formación, creación, producción, distribución e innovación en el sector cultural y/o artístico en la Comunidad Autónoma del País Vasco en el momento actual.

2.– Las personas o grupo de personas solicitantes tienen la posibilidad de presentar proyectos de investigación indistintamente a más de un tipo de beca.

3.– La concesión de las becas no establece relación contractual, laboral o estatutaria alguna con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

***Artículo 3.***– Selección y Dotación económica.

1.– Cada uno de los tres tipos de beca de la presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso. A estos efectos se entenderá por concurso el procedimiento a través del cual la concesión de las becas se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas, concediendo en cada una de las becas sólo a aquella que haya obtenido mayor valoración en aplicación de los criterios de valoración.

2.– La dotación económica destinada a contribuir a los objetivos señalados en el artículo anterior procederá de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos del Instituto y se cifran inicialmente en sesenta y nueve mil novecientos noventa y nueve (69.999) euros para el ejercicio 2011.

La concesión de becas correspondientes a 2011 quedará supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para ese objeto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2011, de acuerdo con lo establecido en el artículo 5.3 de la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Artículo 4.***– Solicitantes.

1.– Podrán tener acceso a las becas personas o grupo de personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) que el trabajo de investigación se desarrolle en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Argitaratu beharreko ikerlana hizkera ez sexistaz idatzi behar da.

c) Zerga-betebeharrak ordainduta eduki behar dira.

d) Aurrez Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura beka berdin edo antzekorik jaso gabeak izan behar dira.

2.– Eskaera egiten duten banakoak edo taldeak izaera bereko beka, diru-laguntza edo laguntzen esparruan itzulketa- edo zehapen-prozesuren batean sartuta badaude eta laguntzak esleitzen bazaizkie, itzulketa- edo zehapen-prozesua amaitu egin beharko da laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko. Egiaztatu egin beharko dute, halaber, ez dutela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egitegatik, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiela horrelako debekurik ezarri.

3.– Baldin eta hainbat eskatzailek ikerlan bakarra aurkezten badute, horien titular-kide direnek euren arteko bat izendatu beharko dute Administrazioaren aurrean ordezkari izan dadin.

***5. artikulua.***– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea 2011ko otsailaren 10ean bukatuko da.

2.– Eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariri bidali behar zaizkio (Manuel Iradier kalea 36, 01005 Vitoria-Gasteiz); bestela, administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako edozein bidez aurkez daitezke.

***6. artikulua.***– Eskabideak formalizatzea eta agiriak.

1.– Banakoak edo taldeak I. eranskinean eredu gisa agertzen den eskabidea aurkeztu behar du.

2.– Eskabidean behar bezala adierazi beharko dira datu hauek:

a) Zein beka-motatarako aurkezten den.

b) Eskatzaileen datuak: izena, helbidea edo egoitza (telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoa jarrita) eta banku-datuak (kontu-zenbakia, sukurtsala, banketxea edo kutxa). Ikerlana hainbat lagunek aurkezten badute, taldeak arduradun izendatzen duenaren banku-kontua.

3.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira.

a) Ikerlanaren azalpen-memoria, II. eranskinaren arabera.

b) «Datuen Alta/Doakion Hirugarrena» inprimakia (V. eranskina).

b) que el trabajo de investigación se redacte haciendo un uso no sexista del lenguaje.

c) que se hallen al corriente de sus obligaciones tributarias.

d) que no hayan disfrutado con anterioridad de una beca de igual o similar naturaleza con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Las personas o grupo de personas solicitantes que se encuentren incursas en algún procedimiento de reintegro o sancionador en el marco de becas, subvenciones o ayudas de la misma naturaleza, y que resulten adjudicatarias de las ayudas, verán condicionados la concesión y el pago de las mismas a la terminación del procedimiento de reintegro o sancionador. Asimismo, deberán acreditar que no están cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni estar sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– En el supuesto de que varios o varias solicitantes presenten un único trabajo de investigación, las personas cotitulares deberán designar a una de ellas como representante ante la Administración.

***Artículo 5.***– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 10 de febrero de 2011.

2.– Las solicitudes se dirigirán a la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, Calle Manuel Iradier 36, 01005 Vitoria-Gasteiz, o por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

***Artículo 6.***– Formalización de solicitudes y documentación.

1.– La persona o grupo de personas deberán presentar la solicitud que figura como modelo en el anexo I.

2.– En la solicitud se harán constar correctamente los siguientes datos:

a) Tipo de beca a la que se presentan.

b) Identificación de las personas solicitantes: nombre, dirección o domicilio (incluyendo número de teléfono, fax y correo electrónico) y datos bancarios (n.º de cuenta, sucursal, banco o caja). En el caso de que se presente el trabajo de investigación por parte de varias personas, cuenta bancaria de la persona que asigne el grupo como responsable.

3.– Será necesario adjuntar a la solicitud la siguiente documentación:

a) Memoria descriptiva del trabajo de investigación, según el anexo II.

b) Impreso «Alta de Datos/Tercera Parte Interesada», según anexo V.

c) NANaren fotokopia, banakoarena edo taldeko kideena.

d) Ikerlana egingo duen lagunaren edo lagunen Curriculum Vitae: azterlanaren eremuan edo antzekoetan, generoaren alorrean eta eskatutako bekamotaren araberako ikerketaren alorrean duten prestakuntza eta esperientzia adierazi beharko da. Agiri horrekin batera, IV. eranskinean agertzen den idazkia aurkeztu behar da.

e) Ikerketa hainbat lagunen artean egitekoa bada, argiro zehaztu beharko da bakoitzak zein eginkizun eta zeregin izango dituen prozesuan eta nor izango den ikertzaile nagusia edo arduraduna.

f) Eskabidea egin duen banakoaren edo taldeko kideen zinpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, izenpetzaileak ez duela administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiola debekurik ezarri zehapenak irauten duen aldian ebazpen honetan arautako bekak eskatzeko (VI. eranskina).

g) Zinpeko adierazpena, egiaztatzeko eskabidea egin duen banakoak edo taldeko kideek ez dutela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dien lege-debekurik ere (VI. eranskina).

h) Zinpeko adierazpena, ziurtatzeko ez dela eskatu edo ez dela jaso ebazpen honetan arautako bekaren helburu bera duen diru-laguntza, laguntza, beka, diru-sarrera edo baliabiderik, beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuengandik (VI. eranskina).

***7. artikulua.***– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Bekarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 6. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela ohartarazten zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

***8. artikulua.***– Hautaketa Batzordea.

Hautaketa batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko; Emakunde-

c) Fotocopia del DNI de la persona o personas del grupo.

d) Curriculum Vitae en el que conste la formación y experiencia, tanto en materia de género como en el ámbito del trabajo objeto de investigación, conforme al tipo de beca solicitado de la persona o las personas encargadas de realizar la investigación en el ámbito objeto de estudio o en otros similares. A este documento se acompañará el escrito que se recoge en el anexo IV.

e) Cuando la investigación vaya a ser realizada por varias personas se especificarán las funciones y tareas que realizará cada una de ellas en el proceso, determinando claramente quién será el investigador o investigadora principal o la persona responsable.

f) Declaración jurada de la persona o de las personas del grupo que acredite que la persona firmante no se encuentra cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni está sancionada con la prohibición de no poder concurrir, durante el período que establezca la sanción, a las convocatorias de becas reguladas en esta Resolución, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Anexo VI.

g) Declaración jurada que acredite que la persona o personas del grupo solicitantes, no se encuentran sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas ni se hallan incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello. Anexo VI.

h) Declaración jurada de no haber solicitado o no haber sido concedida ninguna subvención, ayuda, beca, ingreso o recurso para el mismo objeto y finalidad procedente de cualquier Administración Pública o entes públicos o privados para la misma finalidad para la cual se solicite la beca regulada en la presente Resolución. Anexo VI.

***Artículo 7.***– Subsanación de defectos en las solicitudes.

Si las solicitudes de beca no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación señalada en el artículo 6, el Instituto requerirá la presentación de la documentación omitida o la subsanación del defecto observado, concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días a contar desde el día siguiente al de su notificación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 8.***– Comisión de selección.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de selección

Emakumearen Euskal Erakundeko kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

– Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna.

– Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna.

– Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna izango da.

***9. artikulua.***– Hautagaitzak hautatzea eta balorazio-irizpideak.

1.– Hautaketa Batzordeak bereziki baloratuko ditu beka eskatzen duen banakoak edo taldeko kideek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, bekaren gaiaren inguruko ikerlanak egiteko dituzten jakintzak, prestakuntza eta esperientzia; zehaztasun eta adierazpenerako gaitasuna; bekaren langaian jarduteko dituzten ahalbideak, eta ikerlanaren proposamenaren interesa eta ikuspegia. Horretarako, beka-mota bakoitza emateko, Hautaketa Batzordeak balorazio-irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

A) Ikerlanaren kalitatea, oro har (70 puntu, gehienez).

a) Ikerlanaren esparru teorikoaren planteamendua (20 puntu, gehienez).

b) Ikerlana argia eta bideragarria izatea, egutegia eta metodologia barne (20 puntu, gehienez)

c) Ikerlanerako dedikazioa (20 puntu gehienez).

d) Berrikuntzak (10 puntu, gehienez).

B) Banakoaren edo taldearen ibilbidea (20 puntu, gehienez)

– Lana egiten duten banakoek edo taldeko kideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, eta bereziki, eskatutako bekaren ikerketa gaiari buruz duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza.

C) Ikerlanak euskaraz egitea (10 puntu gehienez).

2.– Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proposamenak atzera botako dira.

3.– Lehen aukeraketan hartutako hautagaiei deia egingo zaie elkarrizketa bat egiteko, beren proposamena azaldu eta defendatu ahal izateko. Lehen aukeraketan hiru eskabide baino gehiago hartzen badira, Hautaketa Batzordeak beka bakoitzaren lehenengo hiru hautagaiei soilik egingo die elkarrizketa; proiektua azaldu eta defendatzerakoan behar adinako kalitaterik

compuesta por las siguientes personas de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer:

Presidenta: Secretaria General.

Vocales:

– Responsable de Planificación e Investigación en materia de Género.

– Responsable del Área de Asesoría Jurídica.

– Responsable de Administración y Servicios.

Secretaria: actuará como tal la persona responsable del Área de Asesoría Jurídica.

***Artículo 9.***– Selección de candidaturas y criterios de valoración.

1.– La Comisión de selección valorará especialmente conocimientos, formación y experiencia de la persona o personas solicitantes del grupo en la realización de trabajos de investigación relacionados con el tema objeto de la beca solicitada en materia de igualdad de mujeres y hombres, así como su capacidad de concreción y expresión, sus posibilidades de dedicación al trabajo objeto de la beca, y el interés y enfoque de la propuesta del trabajo de investigación. Para ello, la Comisión de selección tendrá en cuenta, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos, los siguientes criterios de valoración para la concesión de cada una de las becas:

A) Calidad Global del trabajo de investigación (hasta 70 puntos).

a) Planteamiento del marco teórico del trabajo de investigación (hasta 20 puntos).

b) Claridad y viabilidad del trabajo de investigación, incluida la metodología y el calendario (hasta 20 puntos).

c) Dedicación al trabajo de investigación (hasta 20 puntos).

d) Aspectos innovadores (hasta 10 puntos).

B) Trayectoria Profesional de la persona o grupo de personas (hasta 20 puntos).

– Trayectoria, experiencia y formación en materia de igualdad de mujeres y hombres, especialmente sobre el objeto de investigación de la beca solicitada, de las personas o grupo de personas que desarrollen el trabajo.

C) La realización de los trabajos de investigación en euskara (hasta 10 puntos).

2.– Las propuestas que no alcancen un mínimo de 50 puntos serán desestimadas.

3.– Las candidaturas preseleccionadas serán convocadas a una entrevista en la que podrán exponer y defender su propuesta. En el caso de que las solicitudes preseleccionadas sean más de tres, la Comisión de selección entrevistará exclusivamente a las tres primeras candidatas de cada beca, salvo que no alcancen la calidad necesaria en la exposición y defensa del

ez badute, hurrengo hautagaiei egingo die elkarrizketa, dagokion hurrenkerari jarraituz, artikulu honen 1. paragrafoan jasotako balorazio-irizpideen arabera baloratuta.

4.– Elkarrizketan, eskatzaileak, edo taldearen koordinazioa bere gain hartzen duenak, aurkeztutako memoria edo proposamena azaldu eta defendatuko du. Ikerlanaren emaitzen eta ikerlana burutzeko bideragarritasunaren arabera baloratuko da horien kalitatea, artikulu honetako 1. paragrafoan ezarritako irizpideekin bat etorriz; lehen hautaketa-aldian aukeratutako hautagaiek lortutako puntuazioa sendesteko edo ezesteko egingo da elkarrizketa. Batzordeak galderak egin ditzake azaldutakori buruz, bekaren xedeari buruz eta beketan baloratutako alderdiei buruz.

5.– Hautaketa Batzordeak, egindako balorazioaren arabera, esleipen-proposamena egingo du. Proposamenean jasoko dira beka-mota bakoitzerako hautatutako banakoa edo taldea, ordezko eskabideen zerrenda -banako edo talde onuradun batek uko egiten duenerako-, eta kanpoan utzitako eskabideen zerrenda, kanpoan uzteko arrazoia adierazita. Beka-mota baterako edo guztietarako, deialdia bete gabe uztea ere proposa dezake, baldin eta banako edo talde hautagairik ez baldin badago edo proposamena azaldu eta defendatzerakoan behar bezainbateko kalitatezko ikerlanik ez badago.

6.– Deialdi honetako hiru beketakoren bat eman gabe utziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bekaren diru-zenbatekoaz baliatzeko proposa dezake, eta diru-zenbatekoa beste beka bati ematea, hain zuzen ere, beste mota bien artean interesgarriena den bekari.

***10. artikulua.***– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako bekak bateraezinak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek helburu bererako eman dituen edo eman ditzakeen beste beka, diru-laguntza edo laguntza batzuekin.

***11. artikulua.***– Ebazpena.

1.– Hautaketa Batzordearen esleipen-proposamena Erakundeko zuzendariari helaraziko zaio. Zuzendariak ebazpen adierazia emango du, eta emandako eta ukatutako bekak adieraziko ditu, eta, kasuaren arabera, deialdia bete gabe utzi dela adieraziko du. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie banako zein talde onuradunei. Emandako beken zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

proyecto; en este caso se podrá entrevistar con las siguientes candidaturas por el orden que corresponda, valoradas de acuerdo con los criterios de valoración del párrafo 1 del presente artículo.

4.– En la entrevista con la Comisión de selección la persona solicitante o persona que asume la coordinación del trabajo en grupo, deberá hacer una exposición y defensa de la memoria o propuesta presentada valorándose la calidad de las mismas respecto a los resultados del trabajo de investigación y a la viabilidad de la conclusión del mismo, y, de conformidad con los criterios establecidos en el párrafo 1 del presente artículo, la entrevista tendrá por objeto confirmar o no la puntuación anteriormente obtenida por las candidaturas preseleccionadas con anterioridad. La Comisión podrá formular preguntas sobre lo expuesto, sobre el objeto de la beca y sobre los aspectos valorados en las becas.

5.– La Comisión de selección, en función de la valoración efectuada, elevará una propuesta de adjudicación en la que conste para cada tipo de beca la persona o grupo de personas seleccionadas, una relación de las solicitudes suplentes, para el caso de que se produzca alguna renuncia por parte de la persona o grupo beneficiario, y una relación de solicitudes excluidas precisando la causa de exclusión. También podrá proponer para algún tipo de beca o para todas que la convocatoria quede desierta, en el caso de no haber personas o grupos de personas candidatas o en el caso de que ningún trabajo de investigación alcance la calidad necesaria en la exposición y defensa de la propuesta.

6.– En caso de quedar desierta alguna de las tres becas de esta convocatoria, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer puede proponer disponer de la cantidad económica de la beca y destinar la cuantía a una segunda beca en cualquiera de los otros tipos de becas convocados que resulten de mayor interés.

***Artículo 10.***– Incompatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Las becas previstas en la presente convocatoria son incompatibles con aquellas otras becas, subvenciones o ayudas que, teniendo el mismo fin, pudieran o hayan podido ser otorgadas por cualquiera otra institución pública o privada.

***Artículo 11.***– Resolución.

1.– La propuesta de adjudicación de la Comisión de selección, será elevada a la Directora del Instituto. Ésta dictará Resolución expresa que recogerá para cada beca las concedidas y denegadas, así como, en su caso, declarará desierta la convocatoria. La resolución adoptada será notificada individualmente a la persona o grupo de personas beneficiarias. Asimismo, a efectos de general conocimiento, la relación de las becas concedidas será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horretan banakoari edo taldeari ebazpenik jakinarazi ezean, bekaren eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

***12. artikulua.***– Jabetza intelektualaren eskubideak.

1.– Jabetza intelektualaren eskubideari buruzko arauen esparruan eta indarreko legedian jasotakoaren arabera erabiliko dira egindako lanak.

